

Ibaialde erakusketa



Ekainaren 17tik 23ra bitartean, *Ibaialde* erakusketa ikusgai dago Zeraingo kultur etxean. Ibai eta erreken inguruko ekosistemen garrantzia azpimarratu eta haien zaintzaren gaineko kontzientzia bultzatu nahi duen erakusketa ibiltaria da egunotan Zerainen ikusgai dagoena. Guztira bederatzi panelek osatzen dute Ingurumen Hezkuntzak sustatuta herriz herri dabilen erakusketa. San Joan bezpera arte, interesa duenak kultur etxean dauka aukera.

Udala uztailean osatuko da

Zeraingo Udal hautetsi berria ezin izan zen joan den ekainaren 11n osatu gai-nontzeko udalerrietan bezala. Hauteskunde batzordeak egindako akats baten ondorioz, ez zegokion zinegotzi bat izendatu zion batzordeak PPri. Joan den maiatzaren 22an, udal-erako hauteskundeetan PPren zerrendak boto bakar bat jaso zuen, baina emaitzen informazioa jasotzerakoan, hauteskunde batzordeak zinegotzi bat eman zion. Akats horren ondorioz, udal-gobernu berria osatzeko akta ofiziala ez zen iritsi herriak hautatutako herriko 5 zinegotzien izenekin, herriko 4ren eta PPko baten izenekin baizik. Horri helegitea jarri dio Zeraingo Herri Kandidaturak, ekainaren 9ko herri bileran azaldu bezala. Orain Auzitegiari dagokio kasua ebaztea. Eta gauzak ondo, akatsa zuzenduta, uztailearen 2an osatuko da udal berria.

San Joan bezpera eta Mutiloako sagardo probaketara jaitsiera

Ekainaren 23an, San Joan bezpera, jai egun majikoa izango da Euskal Herriko txoko gehienetan. Zerainen, urteroko legean, arratsaldeko 7:30etatik aurrera ospatuko da plazan. Herriko dantzari gazteekin, Uharka abesbatzarekin eta merienda goxoarekin, herri-giro ederrean ospatuko dugu San Joan bezpera.



Uztailearen 1ean, ostirala, Mutiloako sagardo probaketara herri-jaitsiera egingo da. 7:15ean Zeraingo plazan elkartzuta, festa giroan oinez jaitsiko gara Mutiloara.

Jubilatuen eskurtsioa eta Imersoko izen-ematea

Urtero egiten den herriko jubilatuen eskurtsioa uztailearen 9an egingo da aurten. Azken ibilbidea erabat zehaztu gabe badago ere, Gipuzkoako kostaldera irtetzeko asmoa dago. Beraz hala nahi duten herriko jubilatuek (eta bestelako herritarrek lekua dagoen heinean) aukera bikaina izango dute elkarrekin egun-pasa ederra egiteko uztaileko bigarren larunbatean. Horretarako, Udalean eman beharko dute izena.

Bestalde, Imersok ireki du 2011-2012 denboraldiko adinekoren oporraldi programa. Aurreko urteetan eskaera egin zutenek etxean jaso dute aurtengo eskaera orria eta ez daukate aparteko ezer egin beharrik. Aurten lehen aldiz eskatu nahi dutenek berriz, udaletxera jo behar dute ostegunetan 12:15-15:00 bitartean Begoñarekin egoteko.

Zeraingo ibilbide botanikoen sareko foileto berriak

Zeraingo ibilbide botanikoen sareko foiletoa argitaratu da dagoeneko. Egokitu den ibilbide sarean, gai ezberdinei loturiko 5 ibilbideetatik 4 seinaleztatu dira jada eta bosgarrena, Parke Naturalari loturikoa, laster seinaleztatzea espero da. Prestatutako foileto hauek guztiak dagoeneko Turismo Bulegoan eskuragarri daude. Hiru foileto dira guztira: lehenengoa foileto orokorra da, 5 ibilbideen eta Zerainen informazioarekin. Beste bi foiletoetan berriz, 5 ibilbideak datoz. Ibilbideekin batera bidean aurkituko ditugun zuhaitz eta landare ezberdinak ere agertzen dira.



Ikasturte amaieran, Zuberoara irteera eta Eskola Txikien eguna Abaltzisketan



Maiatzaren 28-29ko asteburua Ipar Euskal Herriko Zuberoako lurraldean pasa genuen haur eta gurasook: Holtzarteko zubian, Kakuetak Harroiletan, Santa Engrazi herriko albergean gaua pasatzen, Iratiko etxoletan eta Donibane Garazin izan ginen. Eguraldiak ere lagundu zigun eta asteburu zoragarria pasa genuen.

Ekainaren 12an, Abaltzisketan izan ginen Gipuzkoako Eskola Txikien festan eta lekukoa hurrengo urterako Larraul herriak hartu zuen.

Basarte Guraso Elkarte

Bertso-udalekuak Zerainen

Bertsozale elkarteak urtero antolatzen dituen bertso-udalekuetako batzuk Zeraingo albergean egingo dira aurten. Udan zehar, bi egonaldi egingo dituzte bertsolari gazteek. Lehen txandakoak uztailaren 10etik 17ra bitartean izango ditugu herrian. Etorkizuneko bertsolariak bertan izango ditugula aprobetxatuta, aukera izango da bertso-jaialdiez bertatik bertara gozatzeko.

Aitziber Makazaga Gipuzkoako bolari txapelduna



Joan den maiatzaren 29an Ereñotzun jokatu zen Gipuzkoako bola txapelketa Aitziber Makazagak jantzi zuen emakumezkoen txapela. Beste urte batzuetan lortu bezala, aurten ere Aitziber Gipuzkoako txapeldun!

Elemena

Hau ere kanpotik etorri zaigu. Ez oso urrutitik, baina bai Goierriko beste herri txiki eder batetik. Berri-emailea lehen ere saiatu izan da galtzen ari diren hitzak jasotzen, eta bete-betea asmatu du oraingoan ere. "elemena izan da sagarra joan den urtean, gure baserrian": esaldi hori, edo antzeko bat, erantsi zigun *elemena* horrek zer esan nahi duen adierazteko. Asko izatea, asko edukitzea, oparotasuna adierazten du, beretzat, hitz horrek.

Etorri gara Zeraina, eta hasi gara galdezka: uste baino jende gutxiagok ezagutzen du hitza, eta oso gutxi erabiltzen du. Ezagutzen dutenek, bere entzutea dutenek, berehala azaldu digute hitzak zer esan nahi duen: ugartasuna, erabateko oparotasuna. Hiztegiara joan gara, zer ote dioen jakin nahirik. Bete-betea baieztatzen du OEHk Goierriko adiera hori. Bi forma ematen ditu hitzarentzat: *elemenia* batetik, eta *elemena* bestetik. Lehenengoa da, itxuraz, zabalduena. Gipuzkoako Goierri ematen da lehen lekugunetzat, baina Iparralderaino iristen da bere erabilera. Deba-arroko lekuetan ere badaغو hitz horren testigantzarik. Hor, hain zuzen, *elemena* bakarrik dirudi dokumentaturik. Adibideak ugari samar datoz hizte-

gian: batetik "elemena izate zan loinia, gure gazte denboran", bestetik "zaldun ezkongaietatik *elemena* da: Santxo Iburguen, Otxoa Iarza (..) ta eztaikit nik beste zenbat andiki". Deklinaturik ere sarri ageri da hitza: "urte batzuetatik onunzkoa da toki guztietan giza irudiak *elemenian* ikustea", edota "hara-giak, baratzekariak, arrainkiak (..) denetarik *elemeniaka*".

Zergatik ari da hitza galtzen? Ekonomia eta teknologia aldatu delako eta eldaketa horrek lehen ez bezalako lan-modua, bestelako bizimodua sortu duelako? Gure gizarte honek habaila biziko aldaketa soziokulturala izan duelako eta aldaketa horrek hitz hau baztertu egin duelako, non erabili ezinaz? Apenas. Bali-teke aldaketa demografiko, ekonotekniko eta soziokultural horiek ere beren eragintxoak izatea *elemena* hitzaren galeran, baina galera nagusia ez dirudi hortik datorrenik. Bere sinonimotzat (partez edo osoz *elemena*-ren sinonimotzat) har litezkeen *asko*, *oparo*, *ugari*, *erruz*, *izugarri* modukoak ez dira galdu. Gehienez ere, leku egin behar izan diote beste horiek azken belaunaldian etxekotzen ari zaizkigun forma "berri"agoei: *kristo(re)na*, *mundiala*, *lade-dios* eta abar. Zein da, beraz, *elemena* galtzearen motiboa?

Erantzun beterik ez daukat galdera horrentzat, beste askotan bezala. Hipotesi moduan, halere, honako motibo hau azalduko nuke: sinonimo askotxo dituzten kontzeptu abstraktuen (eta agian materialen) kasuan, ideia bat adierazteko hitz bakarra ez baina hitz-sorta osoa dugunean eskueran, bakantzen ari gara sorta hori. Sinpletzen ari gara lehengo hitz-sorta ugari, konplexu hura, sinonimo batzuetatik besteetara bizirik zeudekeen xehetasunak ahaztuz eta kontzeptu uniformeagoetara joaz. Horren ondoan, hartarako beharra sentitzen dugun heinean, sinonimo berriak sortzen ari gara, sarritan kanpotik hartuta. Birmoldaketa intralinguistiko horretan oraingo hiztunon mintzagaitasun elebidunak, gaztelaniarekin konpartituak eta askotan haren jirabuelakoak, alferrikakoak bihurtzen dizkigu xehetasun semantiko diferentzial zaharrak eta, bereziki, hartaz baliatzen diren hiztunak telebistan, irratan, egunkari-aldizkarietan, eskolan eta unibertsitatean gutxi direnez, beraien altxor hori marjinalizatzen ari da gutxika-gutxika. Beste euskara bat sortzen ari da. *Elemena* bat hitz falta ditu euskara berri horrek, eguneroko jardunean.

Mikel Zalvide eta Elena Mendizabal

Iritzia

Zorionak

Kaixo herritarrok!

Hemen gatozkizue azken hauteskundetako emaitzak direla eta zoriontzeko asmoz. Hala nola zoriondu Hego Euskal Herria, Gipuzkoa, Goierri eta nola ez Zerain, Bildu koalizioak izan dituen emaitzengatik. Babes eta boto kopuru erraldoi hauen ondorioz, aipatu gabe ezin utzi, Zeraingo herrian, Gipuzkoako Foru Aldundirako juntakide bat dugula Bildu koalizioan: Patxi Saez de Egilaz Murgiondo. Zorionak Patxi! Zorionak Bildu! Gauzatu dezagun denon artean Euskal Herriaren aldaketa.

Iraitz Iparragirre eta Beñat Elorza.

Kantuko ikasleen kontzertua elizan



Ekainaren 3an, Ordiziako musika eskolan ikasten ari direnek kontzertua eman zuten elizan. Tartean Telleriko Jexux ere aritu zen.

Babesetik

MAIATZA	al	ar	az	og	or	lr	ig
							1
Euria (l/m)	GUZTIRA: 125 l.						8
C° altuena	ALTUENA: 32°						24
C° baxuena	BAXUENA: 6°						11
	2	3	4	5	6	7	8
Euria (l/m)	2	7	0	0	0	19	0
C° altuena	27	17	26	28	25	21	28
C° baxuena	9	13	6	6	14	12	9
	9	10	11	12	13	14	15
Euria (l/m)	0	0	11,5	0	0	12	0,5
C° altuena	30	31	31	21	25	17	20
C° baxuena	12	12	14	14	11	14	8
	16	17	18	19	20	21	22
Euria (l/m)	0	0	0	0	0	0	0,5
C° altuena	26	29	32	30	28	31	21
C° baxuena	7	6	9	15	13	13	14
	23	24	25	26	27	28	29
Euria (l/m)	0	0	3	4	1,5	0	0
C° altuena	32	21	35	18	18	25	29
C° baxuena	13	15	12	14	11	8	10
	30	31					
Euria (l/m)	43	13					
C° altuena	26	15					
C° baxuena	17	13					

Maiatza ere beroa

Maiatza ere berotik joan zaigu. Horren erakusgarri argiena temperatura: 30° tara igo zaigu termometroa zortzi egunetan; eta hauetako batean, 35°era ere iritsi da. Euria tamaina onean egin du, tximista eta turmoi hotsaren ondoren euri zaparrada bikainak botata. Zelai, soro eta baratzeen onerako. Azgazkian ikusten ditugun goiz-keiza hauei on egun die beroak eta euriak.



Aizkorri-Aratz parke naturalaren Zeraingo zatian ibilaldia antolatu zen joan den maiatzaren 28an. Herriko ibiltariek Amizabalen atera zuten argazki hau.

Otatza berriro irekita

Otatza sagardotegiak berriro atea ireki ditu, sagardotegi denboraldia amaitu ostean. Ostiral, larunbat eta igandetan oilasko errea eta bestelako hainbat jaki eskainiko dituzte gerturatzaren direnentsat. Informazio gehiago 943801757 telefonoan.

Festen eta urtekariaren bigarren bilera

Festak eta urtekaria antolatzeko 2. bilera ekainaren 22an, asteazkena, egingo da iluntzeko 7etan kultur etxean.

Larraitzko mosaikoan parte hartzeko deia

Autodeterminazio eskubidearen aldeko Nazioen Mundua ekimenak jaialdia antolatu du Larraitzen uztailaren 2rako. Han egingo den mosaiko erraldoian parte hartzeko deia egin die goierritarrei, eta Zeraindik joateko asmoa dutenei Mandion izena emateko eskatzen zaie.



Pirritx, Porrotx, Marimotx eta beste hainbat lagunek bideoklip berezia grabatu dute Zerainen. Elikadura osasuntsua eskoletan bultzatzeko kontzientziazio programa baterako da pailazoek beste bertsolari eta aktore batzuekin batera grabatutako bideoa.